

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

3/2015 Foru Araua, otsailaren 11koa, Kuadrillen 63/1989 foru araua, azaroaren 20koa, aldatzen duena

Arabako Biltzar Nagusiek 2015eko otsailaren 11n egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

3/2015 Foru Araua, otsailaren 11koa, Kuadrillen 63/1989 foru araua, azaroaren 20koa, aldatzen duena

Zioen azalpena

Gehienbat, azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauak, kuadrillenak, arautzen ditu Arabako kuadrillak, udalerriz osatutako foru lurralde erakunde gisa eratuak. Foru arau horrek haien funtzionamendurako oinarritzko arauak ez ezik haien kopurua eta izen ofizialak ere xedatu zituen.

Foru arau honek haren bi alderdi aldatzea du helburu. Batetik, orain arte Cuadrilla de Salvatierra / Aguraingo Eskualdea izena izan duenak, hots, Dulantzi, Asparrena, Barrundia, Burgelu, Iruraiz-Gauna, Agurain, Donemiliaga eta Zalduondoko udalerriek osatuak, izena aldatzeko asmoa azaldu du, nola euskaraz hala gaztelaniaz, eta, ondorioz, aurrerantzean, Arabako Lautadako Cuadrilla / Cuadrilla de la Llanada Alavesa izena izango du.

Bestetik, Zuiako eta Aguraingo kuadrillek egindako eskaerari jarraiki, foru arau honen bidez, arautu egiten da kuadrillako batzarkide batek beste baten esku utzi ahal izatea botoa zenbaitean. Eskuordetze hori ez da orain arte araututa egon.

1. artikulua

1. 4. artikulua honela geratu da idatzita:

4. artikulua

Arabako lurraldea ondorengo kuadrillek osatzen dute:

1. Cuadrilla de Vitoria-Gasteiz/Vitoria-Gasteizko Eskualdea.
2. Cuadrilla de Ayala/Aiarako Eskualdea.
3. Cuadrilla de la Llanada Alavesa/Arabako Lautadako Cuadrilla.
4. Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa/Biasteri Arabako Errioxako Eskualdea.
5. Cuadrilla de Zuia/Zuiako Eskualdea.
6. Cuadrilla de Añana/Añanako Eskualdea.
7. Cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa/Kanpezuko-Arabako Mendialdeko Eskualdea.

2. 7. artikulua honela geratu da idatzita:

7. artikulua

Dulantziko, Asparreneko, Barrundiako, Burgeluko, Iruraiz-Gaunako, Aguraingo, Donemiliagako eta Zalduondoko udalerriek osatzen dute Arabako Lautadako Cuadrilla.

Horren egoitza Agurainen dago.

3. 24. artikuluari 5. puntu bat eransten zaio, eta honela geratu da idatzita:

24. artikulua

1. Kuadrilla Batzarraren erabakiak gehiengo soilez hartzen dira. Baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean, gehiengo soila dago, eta horretarako ez dira zenbatuko abstentzioak.

2. Hala ere, legezko batzarkide kopuruaren erabateko gehiengoa beharko da gai hauetarako:

a) Beren erregelamendu organikoa onartzeko eta aldatzeko.

b) Eskumenak hartzeko.

c) Erabakiak hartzeko, legeak horrela eskatutako gaietan.

3. Bi herenen gehiengo kualifikatua beharko da zerbitzu komun berriak ezartzeko erabakietarako.

4. Bozketak, oro har, bertan daudenen botoaren esanahia ezbairik gabe adierazten duten kanpoko zeinuz egingo dira, lehendakariak hala eskatuta.

Baina pertsonak izendatzeko denean edo bertan dauden kuadrilla batzarkideen laurdenak hala eskatzen duenean, bozketa idatzizko txartelen bidez egingo da eta isilpekoa izango da.

5. Kuadrilla batzarkideen botoa pertsonala eta eskuordeezina da, honako egoeretan izan ezik:

Batzarkideek beste batzarkide bat eskuordetu dezakete beren botoa emateko, haurdunaldi, erditze edo ospitaleratze arrazoiak direla-eta bilkuretara joateko betebeharra bete ezin dutenean.

Botoa emateko eskuordetze hori Kuadrilla Batzarraren lehendakariari zuzendutako idazki baten bidez egingo da, honakoak adierazita: botoa emateko eskuordetzearen egilearen eta hartzailearen izena, zein eztabaidatan eta bozketatan gauzatu behar den bozketa edo, hala dagokionean, eskuordetzearen iraupena.

2. artikulua

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 11

Lehendakaria

JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA